

EXOTOPONIMOEN JENTILIZIOAK OSATZEKO ARAUAK

Inaki Irazabalbeitia

Azken puntu hau ez dagokio exonimiari, lexiko arruntari baizik. Alabaina, exonimiarekin erlazio oso estua duenez, gutxienik arazoa planteatzea egoki iruditzen zaigu. Izan ere, iskanbilatsua eta nahasia da.

Euskaraz, leku-izenari *-ar* atzizkia erantsiz lortzen dira adjektibo jentilizioak, nongotarra den adierazten dutenak alegia. Euskal Herriko jentilizioak Akademia honek eman zituen Euskal Herriko Udalen Izen-degia liburuskan. Bertan hauxe dio:

“Herritarren izenetan kontutan eduki da tokiko erabilera eta tradizioa, zeren tokikoak ez direnak ez baitituzte ongi bereizten bukaerako -ar, -tar eta -dar. Baina nola joka, egun euskaraz mintzatzen ez den tokiez?”

Kasu honetan analogi irizpidea jarraitu dugu, Araban, Mendebaldeko eren arabera eta Ekialdekoak, Nafarroan.”

Kanpoko leku-izenetatik jentilizioak eratortzeko orduan bistan da “tokiko erabilera eta tradizioa” irizpideak hutsaren hurrengoa balio duela. Beraz, kasu horretarako irizpide edo arau bat eman beharra dago. Izan ere, egun oso jentilizio bitxi ikusi ahal da nonnahi idatzirik: irakiar, iraniar, kanadiar, katalandar etab. Guk, Euskal Herriko jentilizioetarako Euskaltzaindiak emaniko zerrenda abiapuntutzat hartu eta exotoponimoen jentilizioak emateko irizpide-taula bat osatu da.

| Leku-izenaren amaiera | | Atzikiaren forma | Adibidea | Zenbait salbuespen |
|-----------------------|-------------------------|------------------------------------|---|--------------------|
| K O | m / n / l | -dar | Milan: milandar Nepal: nepaldar Jerusalem: jerusalemdar | |
| | r / s / sh / x / z | -tar | Aljer: aljertar Paris: paristar Londres: londrestar | |
| S O | ts / tx / tz | -tstar / -txtar / -tztar | Metz: metztar | |
| N | ng | -dar | Reading: readingdar Hong Kong: hongkongdar | |
| A N T | gainerako kontsonanteak | -ar | Leipzig: leipzigar Al-Jizah: jizahar Hamburg: hamburgar Cardiff: cardiffar Paraguay: paraguayar | Irak: irakiark |
| E A | kontsonante + h | h aurreko kontsonanteari dagokiona | Perth: perthar Phnom Penh: phnom-penhdar | |

| Leku-izenarenamaiera | | Atzikiaren forma | Adibidea | Zenbait salbuespen | |
|----------------------------|------|--|--|--|-------------------|
| B O K A L A | a | silaba bat edo bi | -tar | Txina: txinatar | Suitza: suitzar |
| | | 2 > silaba | -ar | Kanada: kanadar Albania: albaniar Europa: europar | Erroma: erromatar |
| | | ta | -ar | Malta: maltar | |
| | u | -tar | Katmandu: katmandutar Mosku: moskutar | Estatu Batuak: estatubatuar | |
| | au | -tar | Dachau: dachautar Passau: passautar | | |
| | i | -ar | Miami: miamiar | Napoli: napolitar | |
| | o | -ar | Damasko: damaskoar Oslo: osloar Kongo: kongoar | Egipto: egiptiar Mexiko: mexikar Santiago: santiagotar | |
| | io | io + ar = iar | Mediterranio: mediterraniar Pirinio: piriniar | Tokio: tokiotar Ohio: ohiotar | |
| e | -tar | Gaborone: gaboronetar Txile: txiletar Baltimore: baltimoretar Sucre: sucretar | | | |